

SANTA BARBARAKO PUTZUA: IRAGANEAN MURGILDU ETORKIZUNA BILATZEKO

Iñaki Sanz-Azkue


Putzu handi bat harrobiaren oinean. Asfaltozko errepide estu bat, zelaiak eta baso txiki bat hura inguratzen. Aurrean duen paisaiak atentzioa emango dio handik pasatzen den pertsonari. Santa Barbarako putzuak, edo lakuak, deitu nahi diozun moduan, baduelako bere xarma. Hernaniar askoren paseo txikien geltoki, familian egiteko arratsalde pasen aitzakia, edota arrantzarako, meriendarako edo naturaz gozatzeko txoko maitatua bihurtu da jada.

Santa Barbarako lakuak, ordea, baditu ondo gorderiko sekretuak ere. Haren sorreratik hasi, eta egundaino igaro direnak: isilean, sakonean. Hala, erreportaje honetan, putzuan murgilduko gara, hernaniarrei lakuaren iraganaz, orainaz eta etorkizunaz hitz egiteko. Santa Barbarako lakuari buruz sakonean mintzatzeko.

Azalpen gutxi behar du Santa Barbarako lakuak. Izen bereko auzoan, bertako harrobiaren oinean, Agerre eta Buztintxulo (egun Aize-eder izenekoa) baserrien artean aurkitzen da erreportajea hizpide izango dugun putzua. Ez dago han kasualitatez, ez. Eremuko geologiak eta gertaera historikoek eragin dute lakua hor sortu izana. Izan ere, askori harrituko dion aurreneko gauza hori baita: Santa Barbarako putzua ez da putzu naturala.

Ingurua zerbait ezagutzen duenak ederki asko jakingo du Agerre baserriaren ondoan badela zulo bat, inbutu formako sakon bat. Leku horiei “*dolinak*” deitzen zaie, eta kareharrizko (edo Hernanin esango genukeen moduan, *karaitzezko*) eremuetan azaltzen dira. Santa Barbarako lakua dagoen eremua urik gabe irudikatuko bagenu, antzeko zerbait ikusiko genuke. Izan ere, dolina bat zegoen tokian dago orain ura pilatuta. Hargatik, leku askotan “hezegune karstiko” moduan dago katalogatua putzua. Eta bai, karstikoa da eremua, eta putzua bertan dago; baina... Zergatik sortu zen lakua dolina horretan, eta ez Agerre aldameneko zuloan? Zergatik batean bai, eta bestean ez? Zergatik hasi zen betetzen aurretik hutsa zegoen dolina?

Harrobian dago gakoa.



Santa Barbarako putzuaren itxura 2021eko irailean.
(Argazkia: Marimi Azkue).

Harrobia eta santa barbarako lakua


Ez da kasualitatea Santa Barbarako lakua harrobiaren oinean egotea. Izan ere, putzuaren sorrera estuki loturik dago harrobiari, edo behintzat, haren esplotazio industrialari. XIX. mendearen hasieran, Hernaniko eta Gipuzkoako errepideen konponketa lanak egiteko asmoz, Santa Barbarako mendia zulatzen hasi ziren “laubidieta”ko inguruan, eta hala sortu zen harrobiaren lehen arrastoa. Orduan, oraindik, ez zen putzurik Santa Barbaran. Urteak, ordea, aurrera joan ziren, eta mende bat geroago, 1945 urte inguruan, pausu bat gehiago eman zuten, eta industrialki esplotatzen hasi ziren harrobia (ez iskanbila gutxirekin). Alegia, Santa Barbara mendian zegoen zuloa handitzen eta handitzen hasi zen mendebalderantz, Agerre baserria zegoen eremurantz.

Hala, Agerre inguruan zegoen inbutu formako zuloetako bat harrobiko hondakinekin edo zakarrare-


kin betetzen hasi ziren, eta pixkanaka, dolina horren azpialdea iragazgaiztu egin zen. Hortik aurrerakoak naturak berak egin zituen: euri urarekin betetzen joan zen zuloa, egun ezagutzen dugun Santa Barbarako putzua sortu arte.

Argazki aereo zaharrak, eta Santa Barbara inguruko eremuaren garai hartako argazkiak ikusi baino ez dago hori ziurtatzeko. 1956-57an amerikarrek ateratako argazkietan harrobi txiki bat ikusten da oraindik ere, baina lakurik ez. 1977-78ko argazkietan, harrobia asko zabaldu zela ikus daiteke, eta bertako hondakinak botatzen zituzten eremua garbi ikusten da. Egun putzua dagoen lekuan, ura ikusten da dagoeneko, eta horren atzealdean hondakinek osatzen duten mendixka bat, harrobian hasi eta lakuraino jaisten dena.

Argazki horietan, ordea, bada zerbait atentzioa ematen duena. Bai 1956ean, putzua sortu aurretik, bai 1977an, sortu ondoren, begirada zorrotzarekin begiratuta, lurrian zutik dauden konkor antzeko irudi berezi batzuk ikusten dira egun Santa Barbarako lakua dagoen eremuan: lur-sail horien jabeek egiten zituzten belar-metak dira.



Santa Barbara inguruko argazki aereo (1956-57). Oraindik ez da putzurik ageri, eta dolina inguruan metak ikusten dira (argazkia: GeoEuskadi).




Santa Barbara inguruko argazki aereo (1977-78). Bertan jada putzua ikusten delarik. Putzuaren aldamenean, metak lerrokatuak (argazkia: GeoEuskadi).

Belar-metak santa barbarako putzu inguruan...

Metak egoteak jada pista on bat ematen digu putzua sortu aurretik dolina zegoen eremuari ematen zitzaion erabilerari buruz. Iñaxio Urreagak (1947, Agerre baserria, Santa Barbara auzoa) ondo asko gogoratzen ditu paraje horiek nolakoak ziren: *“putzua sortu aurretik zulo bat zegoen. Gure baserriaren (Agerre) aldamenean dagoena bezalakoa, baina txikixeagoa. Zuloa belazeak estaltzen zuen, eta belar hori moztu egiten zuten lurjabeek”*.

Iñaxio gaztea zenean, 23 urte inguru izan arte, laguntzen aritzen zen bertan. Artean Hipolito Arregiren *“Potrokillo”* familia zen lur haien jabea, eta Hipolito aritzen zen belarra moztu eta belar-metak egiten. Iñaxiok, ordea, gogoan ditu zuloaren behe aldetik, metak egiten ziren tokitik, goraino belarra igotzeko ibiltzen zituzten komeriak: *“Hipolitok gurdia metako belarraz kargatzen zuen, baina behetik gorakoan, haren behiek ezin igo malda, zulo hark 20 bat metro izango baitzituen gutxi gorabehera, eta aldapa handia. Hala, puntakoa jartzen genuen: gure idi parek jartzen zen behien atzetik, lotuta, eta hala, lau animalien artean igotzen zuten gurdibelarra. Han izaten ginen Eugenio aita, Kepa anaia edo neroni laguntzen”*.



Belar-metak Santa Barbara putzuaren aldamenean, 1980an. Atzealdean Agerre baserria, aldamenean zituen metak ere ikusten direlarik. (Argazkia: Ines Sarasuaren argazki bilduma).

Iñaxiok gogoan du oraindik ere aldapa hura igotzeko euren baserriaren aldera ateratzen zen maldatik egiten zutela gora. Hura baitzen magal leunena zegoen puntua. Bide legea. Metak zuloaren behe aldean izaten ziren, baina ez ziren, ordea, inguruan belar-metak egiten zituzten bakarrak. Iñaxiok gogoan du orain zuloaren kanpo aldean, errepidea dagoen kontra horretan ere izaten zirela metak, baina haiek Karabel auzoan, zubiaren aldamenean zegoen etxeok (Eguzki-alde) egiten omen zituzten.

1970. hamarkadaren hasieran, ordea, aurretik esan den moduan, harrobiko zakarra zulora botatzen hasi ziren. Orain, 50 bat urte beranduago, paisaia erabat aldatu da, eta aurretik nola zen ezagutu ez zuenak, kostata sinetsiko du Santa Barbarako putzua, Iñaxiok dioen moduan, ez dela naturala: “*artifiziala da*”.



Harrobitik erortzen ziren hondakinek sortu zuten Santa Barbarako putzua, irudian ikus daitekeen moduan. 1983ko irudia (argazkia: Ines Sarasuaren argazki bilduma).

Bazkaria sari, lurrak saltzerakoan...

Putzua sortu aurretik zegoen zuloa ez zen erosoena lanerako, baina besterik ezean, hango belarra ateratzea komeni izaten zen, gero ukuilura eramateko. Hala, Hipolitoren alabak, Maite Arregik gogoan ditu han ibiltzen zituzten lanak: “*Aurretik gure aitona-renak, amaren aitarenak izan ziren lur haiek: Anselmo Arbiderenak. Txikia nintzen ni artean, baina gogoan dut, aita belarra moztzen aritzen zela. Horretarako laguntza izaten zuen. Jose Izagirre eta Jose Intxarburu joaten ziren laguntzera. Gure ama Pepitak eta ahizpa Rosak ere izaten zuten lana. Belarra moztu ostean, lehortzen uzten zen bertan, eta hurrengo egunean, ama eta ahizpa joaten ziren hari buelta ematera*”.

Harrobia handitzen joan zenean, ordea, harrobiko jabeak sendiarekin jarri ziren kontaktuan, eta haien lurrak erosteko eskaintza egin zieten. Hala, haien terrena harrobikoei saldu zieten. “*Gure aita pozik zen oso. Lur txarra zen hura lanerako, harri askorekin belarra mozteko, hura zulotik ateratzeko lanak... sos batzuk atera zituenez salmentarekin, familia osoa bazkaltzera joan ginen egun hartan. Ospatzera*”.

Hortik aurrerakoak kontatu ditugu jada. Harrobiko hondakinak dolinara bota, eta hoge bat metroko sakonera izango zuen zuloa tapatzen joan ziren. Euri ura jada ez zen lur azpira sartzen lehen bezala, eta hala, putzua sortzen hasi zen.

Santa barbarako putzua, katalogatua.

Artifizialki sortua izan, ala naturalki izan, dudarik ez dagoena da egun Santa Barbarako putzuak ekosistema eder bat izateko baldintza guztiak betetzen dituela. Hala, ez da harritzekoa EAEko Hezeguneen Lurralde Arloko Planean katalogatua egotea. “Barrukaldeko Hezegune Natural”-en barruan dago klasifikaturik, “Klima Atlantiarreko Hezegune”-etan eta zehazki, “kareharriari loturiko putzu”-en taldearen barruan.

0,3 ha-ko azalerarekin eta 0,1 km-ko perimetroarekin, putzuaren inguruan 100 m-ko banda bat hartuz, batez ere nekazaritzako eta abeltzantzarako landazabala da nagusi inguruan. Agerre aldera, putzutik oso metro gutxira, Agerre baserri albotik igarotzen den errepidea dago. Iparraldean, harrobi aldera ematen duen zatian, aldiz, egun hostozabalez osaturiko basoa da nagusi, garai batean harrobitik bota zituzten hondakinak pilatzen diren eremuan bertan. Putzuaren ertzean, hein handi batean, ihia nagusitzen da hezetasun maila handiak mantentzen diren lur zatian. Putzutik aldenduago sasia aurki daiteke putzuaren ipar-mendebaldean. Iparraldean, sahatsek, espezie ezberdinetako zuhaitzek eta zuhaixka hosto erorkorrek osatzen dute landaredia. Bere ezaugarriek, eta katalogazioak, alabaina, ez dute eraginik izan Santa Barbarako “lakuaren” kontserbazioan. Biodibertsitatearen aldetik eremu interesgarria eta potentzial handikoa izan zitekeena, egun, eremu oso degradatua bihurtu du, nork eta sortu zuen berak: gizakiak.

Ikusten dira oraindik bertan ugaltzen apo arruntiberiarrak (*Bufo spinosus*), edota ikusi dira ere inguruan narrastiak: *Natrix* generoko sugeak lakuaren gainetik igerian, sugedorriak (*Vipera seoanei*) atzealdeko laharretan... martin arrantzaleak ere egin izan du bisita, bai eta koartza hauskarak eta basa ahateek ere. Burruntziek eta sorginorratzek ere aurkitzen dute bertan bizileku bat. Hala, Iñaki Mezquita adituak zerrendatu ditu bertan hainbat espezie. Bost burruntzi eta lau sorginorratz. *Anax imperator*, *Orthetrum* espezie ezberdinak, *Ischnura graellsii*, *Pyrrhosoma nymphula*... baina Santa Barbarako putzuaren ezagutza ere ez da oso handia, ikerketarik ez baita egin zer dagoen jakiteko.

Ez ezagutza, ordea, ez da kasu honetan arriskutsue-na. Zoritxarrez, badira gauza okerragoak bertan: espezie inbaditzaileak. Gizakiak bertara bota dituen zaborrez gain (gurpilak, motorrak, bizikletak, plastikoa...), askatu ditu ere, besteak beste, etxeetan hain ohikoak diren urrearraina edo karpina (*Caras-*

sius auratus) izeneko laranja koloreko arrain inbaditzaileak, karpak (*Cyprinus carpio*) edota Floridako dortokak (*Trachemys scripta elegans*), igerian zein eguzkia hartzen ikusten ditugunak, baina anfibio espezieen desagerpena ekar dezaketenak putzuan. Jendeak, ordea, horiekin gutxi ez eta ipar Amerikako jatorria duen Blackbass edo *Micropterus salmoides* espezie oso inbaditzailea ere sartu du, esaterako, eta karramarro gorriarekin (*Procambarus clarkii*) batera, osatzen du bertan dauden espezie inbaditzaileen zerrenda zabala.

Hala, ekosistema eder bat izan zitekeena, pixkanaka-pixkanaka suntsitu egin du gizakiak. Egun, jada, hura berreskuratzeko ez dugu beste erremedioirik: erabaki erradikal bat da hartu beharrekoa.

Eta orain, zer egin santa barbarako putzuarekin?

Santa Barbarako lakuak ekosistema moduan duen egoera oso eskasa da momentu honetan. Bertan aurkitzen dira jendeak etxean dituen eta bertan uzten dituen hainbat espezie inbaditzaile. Hala, aukera ezberdinak daude, baina helburua hura berreskuratzea bada, errazak gutxi.

Aukera bat dagoen bezala uztea da. Onartzea jada ez dagoela erremediorik, eta pentsatzea jendeak animaliak bertan uzten dituen bitartean, inguruko hezeguneak bakean utziko dituela. Horrek, ordea, arrisku bat ere badu. Egunen batean harrobiaren berreskurapen lanak egingo balira, Santa Barbarako lakuko espezieak bertara mugitzeko arriskua legoke.

Bigarren aukera, dagoen bezala utzi, baina dibulgazio lanak egiteko hura erabiltzea da. Eta jendea-ri azaltzea zein arriskutsua den kanpoko espezieak askatzea, eta zergatik ez, hezkuntza munduan ere erabilera ematea lekuari. Horretarako, informazio panel bat jartzea litzateke aukeretako bat. Aukera honek, ordea, lanketa bat beharko luke ere, eta proiektu bat garatzea, gauzak ondo egin bidean.

Baina, esperantza galdu gabe, bada azken aukera bat ere. Aurretik beste leku batzuetan egin dena, baina Santa Barbarako lakuaren baldintzak ikusita, proiektu handi samarra litzatekeena: putzua hustea, bertako espezie inbaditzaileak ateratzea, eta euri uraren bidez, berriz ere betetzen ikustea. Ziur asko, ekintza horrek ez luke inbaditzaileen %100a kenduko, baina bai ahalbidetuko luke ekosistemari berriz ere hasteko aukera ematea. Proiektu horrek, alabaina, kanpaina zabal batekin egin beharko luke bidea. Kontzientziazio, dibulgazio eta heziketa kanpaina batekin, erakusteko herritarrei zein kalte egin dezakeen bertan espezie kanpotarrak uzteak, eta zein mesede egiten diogun urmaelari eta bertako espezieei ekosistema dagoen moduan utziaz. Dударik ez da, proiektu handia litzatekeela, baina horrek, era berean, ikusgarritasuna eta balorea emango lioke eremuari herritarren artean, eta zergatik ez, Hernani eredu bihurtu ekosistemen kontserbaziorako pausuak emateko bidean.

Beraz, Santa Barbarako lakuaren etorkizuna hobetzeko aukerak badira oraindik ere. Kontua apustua egitea da. Beraz, zergatik ez saiatu?



Santa Barbarako putzua 2021eko neguan (argazkia: Iñaki Sanz-Azkue).